



Irakurketa Errazean

Tafallako 2026ko otsaileko feriak

Noiz dira feriak?

2026ko otsailaren 6tik 8ra.

Non dira feriak?

Tafallan,

Nafarroako hiri batean.

Eskuineko mapan,

kolore zurian

Tafalla non dagoen ikus dezakezu.





Arratsaldeko 8etan

■ Profesionalen esku pilota partida.

Partidak Eretako frontoian izango dira.

Sarrerek honako prezio hau dute:

- Palkoan:
 - 15 euro aurretik erosten badira.
 - 20 euro egun berean erosten badira.
- Kantxan:
 - 25 euro aurretik erosten badira.
 - 30 euro egun berean erosten badira.



Bikoteko partidurik hauek jokatuko dira:

- Senar eta Ugartemendia pilotariek
Salaberria eta Gazkue pilotarien kontra
jokatuko dute.
- P. Etxeberria eta Rezusta pilotariek
Artola eta Imaz pilotarien kontra
jokatuko dute.





Goizeko 10etan

■ Dianak.

Tafallako Txistulariak izeneko taldeak musika joko du Tafallako kaleetan zehar bizilagunak esnatzeko.



Goizeko 10etatik arratsaldeko 5ak eta erdietara

■ Ehiza-txakurren erakusketa.

Ehiza-txakurrak

ehizarako erabiltzen diren txakurrak dira.

Erakusketa honetan

Nafarroako Patxoia aurkeztuko da,
Nafarroako txakur arraza bat.

Erakusketa azokaren inguruan izango da.



Goizeko 11etatik eguerdiko ordu 1etara

■ Arku-tiro tailerra.

Tafallako Arku Klubak antolatua.

Tailerra azokaren inguruan izango da.



Goizeko 11etan

■ Elikadura azoka.

Azoka Nafarroako plazan izango da.



■ Escape Room.

Escape room bat

taldeko jolas bat da.

Parte-hartzaileek

pistak bilatu behar dituzte

eta probak gainditu behar dituzte.

Proba guztiak gainditu behar dira

denbora amaitu baino lehen.



Escape room-a Ereta pasalekuan izango da.

Escape room-ean izena emateko

egin klik esteka honetan:

[Navarra Media](#)

Goizeko 11ak eta laurdenetan

■ Auto klasikoen ibilbidea Tafallan zehar.



■ Marinelak danborrada

Danborrada Tafallako erdigunetik ibiliko da



Eguerdiko 12etan

■ Escape Room.

Escape room bat
taldeko jolas bat da.
Parte-hartzaileek
pistak bilatu behar dituzte
eta probak gainditu behar dituzte.
Proba guztiak gainditu behar dira
denbora amaitu baino lehen.



Escape room-a Ereta pasalekuan izango da.

Escape room-ean izena emateko
egin klik esteka honetan:

[Navarra Media](#)

■ Erraldoien irteera.

Tafallako Kultur Etxetik.



■ Zanpantzarren ikuskizuna.

Zanpantzar Nafarroako

inauteri tradizionaleko pertsonaia bat dira.

Zanpantzarrez egiten duten pertsonak

ardi-larruekin, txano altu batekin

eta bizkarrean lotutako

joare handi batzuekin janzten dira.



Zanpantzarren ikuskizuna

Tafallako erdigunean izango da

■ Tafalla Kantuz.

Tafallan Kantuz

kalez kale euskaraz abesten duen taldea da.

Tafalla Kantuz taldea .



Nafarroako plazatik aterako da.

■ Herri kirolak.

Herri kirolak Euskal Herriko

kirol tradizionalak dira.

Honelako probak egiten dira, adibidez:

- Enborrak moztea.
- Harriak altxatzea.
- Bizkarrean pisua eramatea.



Herri kirolak Eskolapioen patioan izango dira.

Eguerdiko ordu 1etan

■ Escape Room.

Escape room bat taldeko jolas bat da. Parte-hartzaileek pistak bilatu behar dituzte eta probak gainditu behar dituzte. Proba guztiak gainditu behar dira denbora amaitu baino lehen.



Escape room-a Ereta pasalekuan izango da.

Escape room-ean izena emateko egin klik esteka honetan:

[Navarra Media](#)

Eguerdiko ordu 1a eta erdietan

■ Erraldoien ikuskizuna.

Konpartsako erraldoiek dantza ikuskizun bat egingo dute Nafarroako plazan.



Arratsaldeko 5etan

■ Haurrentzako jarduerak.

Jolas librea eta sormen tailerrak dira.

Jarduerak Eskolapioen ikastetxeko patioan izango dira.



Arratsaldeko 6etan

■ Boxeo eta Kick Boxing gualdia.


Boxeo gualdi bat

hainbat ordu irauten duen

kirol ekitaldi bat da.

Boxeo gualdian hainbat pertsonak

elkarren kontra lehiatzen eta borrokatzen dira.



Kick boxing-a boxeo mota bat da

eta ukabilak eta ostikoak erabiltzen dira.

Boxeo gualdia Eretako frontoian izango da.

■ Txaranga.

Maltaxo Txarangak musika joko du

Tafallako kaleetan zehar.



Arratsaldeko 7etan

■ Zezensuzkoa

Zezensuzkoa

Nafarroako plazatik aterako da.



Arratsaldeko 7ak eta erdietan

■ Música.

Eretan kontzertuak eta DJ saioa izango dira.


DJ-a musika aukeratzen duen pertsona da.

Abestiak nahasten ditu

eta giroa sortzen du.

Jarduera hau Tafallako Gazteak

eta Tafallako Peñak taldeek antolatzen dute.





Goizeko 9ak eta erdietan


■ Zaldi-aziendaren azoka.

Zaldi-azienda

baserrian edo landan hazten diren zaldiak dira.

Zaldi azoka

azokaren inguruan izango da.



Goizeko 10ak eta erdietan


■ Zaldi gurdien kroatzeen erakustaldia.

Zaldi gurdien kroatzea

animalia bat gurdi bati lotzeko balio duen pieza bat da.

Normalean gurdia zaldi bati lotzen da.

Erakustaldia azokaren inguruan izango da.



Goizeko 11etan

■ Elikadura azoka

Nafarroako plazan.



Goizeko 11etan

■ Bisita gidatua.

Bisita gidatua Tafallako elizetako erretaula nagusiak ezagutzeko da.

Erretaula nagusia

elizako aldarearen atzean jartzen den pieza bat da.

Egurrezkoa edo harrizkoa izan daiteke eta oso apaindua egoten da.

Bisita doakoa da

eta San Pedro elizan hasten da.

Izena emateko

egin klik esteka honetan:

[Navarra Media](#)



■ Bisita gidatua.

Bisita gidatua Menkoen Jauregiko Solairu Noblera da.

Bisita gidatuak 6 euro balio ditu.

Izena emateko

egin klik esteka honetan:

[Menkoen Jauregiko Solairu Noblera egingo den bisita gidaturako sarrerak](#)



Goizeko 11etatik eguerdiko ordu 1etara

Azoka inguruan izango da:

■ **Gymkhana.**

un Gymkhana bat hainbat proba

edo erronka dituen jolas bat da.

Taldeka edo banaka parte hartu daiteke.

Helburua ongi pasatzea eta probak gainditzea da.



■ **Ibilaldiak zaldian.**



■ **Arku-tiroa zaldian.**



Goizeko 11ak eta erdietan

■ **Erronda musikala** hiriko erdigunean

Mugarik Gabeko Txuntxuneroak taldearekin.



■ **Zaldi-burdineriaren eta ardien ebaketaren erakustaldia.**

Zaldi burdineria

zaldiaren oinetan ferrak jartzea da.

Ferrak U forma duten

burdinazko piezak dira

eta zaldien oinak babesten dituzte.

Ardien ebaketa ardiei ilea moztea da.



Jarduera hauek azokaren inguruan izango dira.

Eguerdiko 12etan

■ Tostaden dastaketa

Murchanteko olioarekin eta ardoarekin.

Dastaketa bat

janaria probatzea da.



Dastaketa Nafarroako plazan izango da.

Eguerdiko 12ak eta erdietan

■ Bisita gidatua.

Bisita gidatua Menkoen Jauregiko

Solairu Noblera da.

Bisita gidatuak 6 euro balio ditu.

Izena emateko

egin klik esteka honetan:

[Menkoen Jauregiko Solairu Noblera egingo den
bisita gidaturako sarrerak](#)



Eguerdiko ordu 1ak eta erdietan

■ Errondaren amaiera eta euskal dantzak.

Nafarroako plazan.



Eguerdiko 2etan

■ Txerri Zerutarraren zozketa.

Goizean zehar
zozketarako txartelak erosi ahal izango dituzu.



Zozketa Txerri Zerutarraren Ordenak antolatzen du.

Zozketa Nafarroako plazan izango da.

Arratsaldeko 5etan

■ Haurrentzako jarduerak.

Jolas librea eta sormen tailerrak.

Jarduerak Eskolapioen ikastetxeko
patioan izango dira.



Arratsaldeko 7ak eta erdietan

■ Dantzaldia.

Fernando Saxok eta On-Fiesta DJak
kontzertu bat emango dute Hiritarren Zentroan.


Jarduera hau
Erretiratuen Elkarteak antolatzen du.



Erne!

■ Argazki-erakusketa

Ostiraletik igandera
argazki-erakusketa bat ikus dezakezu
Gizarte Etxean.



Erakusketaren izena

Naturaren eta artisauaren arteko erakusketa da.

■ Antigoaleko gauzen azoka

Antigoaleko gauzen azoka

jendea elkartzen den leku bat da,
produktuak saltzeko, erosteko edo ikusteko.

Azokaren izena Vide Grenier da.



Azoka Eskolapioen Ikastetxeko frontoian izango da.

Azoka zabalik egongo da:

- Larunbatean, goizez eta arratsaldez.
- Igandean, goizez bakarrik.

Erne!

■ Landare, zuhaitz eta loreen erakusketa eta salmenta.

Jai guztietan zehar
erakusketa hau ikusi ahal izango duzu
Cortés Plazan.



■ Azoka txikia

Jai guztietan zehar,
azoka txiki bat bisitatu ahal izango duzu
Padre Calatayud Pasealekuan.



■ Azokaren inguruko taberna

Taberna zabalik egongo da
asteburu osoan zehar.

¿Necesitas más información?

Informazio gehiago behar baduzu
jarri harremanetan hauekin:



- **Tafallako Udala.**

- o Deitu 948 70 18 11 telefono zenbakira.
- o Sartu bere web orrialdean: Ayuntamiento de Tafalla

- **Erdialdeko Garapenerako Partzuergoa.**

- o Deitu 948 74 07 39 telefono zenbakira.
- o Sartu bere web orrialdean: www.navarramedia.es

- **Erriberriko Turismo Bulegoa.**

Deitu 848 42 32 22 telefono zenbakira.

Nork antolatzen eta ordaintzen du ekitaldi hau?



Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala



Consorcio
Zona Media
Erdialdeko
Partzuergoa



MUCHO QUE VER CONTIGO
TAFALLA
ZUREKIN BAI IKUSTEKORIK



Navarra Media
Nafar Erdialdea

Nork laguntzen du ekitaldi hau diruarekin?



**Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua**



“© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.

Informazio gehiago: <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/> “.